| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2016KO OTSAILAREN 2AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 2 DE FEBRERO DE 2016.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Keltse Eiguren Alberdi And.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren bian, lehenengo alkateordea, Keltse Eiguren Alberdi andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a dos de febrero de dos mil dieciséis, y bajo la presidencia de la primera teniente de alcalde, dña. Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan

La presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la

da emaitza:

Convocatoria, con el resultado siguiente:

**24.- 2016KO URTARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

**24.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE ENERO DE 2016.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2016ko urtarrilaren 26ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 26 de enero de 2016.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**25.- "GAUEGUN" GAZTELEKUA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEA.**

**25.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE GESTIÓN DEL GAZTELEKU "GAUEGUN".**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: AISIBIZIA ELKARTEARI (GETXOKO HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK GARATZEKO ETA SUSTATZEKO ELKARTEA), G-95481735 IFK duenari, prezioak berrikustea onartzea, 2015-10-30etik aurrera, "GAUEGUN" GAZTELEKUA KUDEATZEKO ZERBITZURAKO. Zehazki, murrizketa % 0,34koa izango da (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko urria eta 2015eko urria artean izandako aldakuntzaren, -% 0,40aren, %85, hain zuzen), eta, beraz, eguneratutako urteko zenbatekoa 76.148,35 eurokoa izango da, BEZetik salbuetsia.

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la ASOCIACION PARA EL DESARROLLO Y LA PROMOCION DE LA INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD DEL MUNICIPIO DE GETXO, AISIBIZIA ELKARTEA con C.I.F. G-95481735 a partir del día 30/10/2015 para el SERVICIO DE GESTION DEL GAZTELEKU "GAUEGUN", de acuerdo con la reducción del 0,34% (correspondiente al 85% de -0,40% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2014 al mes de octubre de 2015), resultando un importe anual actualizado de 76.148,35.-euros anuales exenta de I.V.A.

BIGARRENA: 2015-10-30etik 2016-10-29ra onartutako prezioen beheranzko berrikuspenak xedatutako eta baimendutako gastuan 259,79 euroko murrizketa dakar, BEZetik salbuetsita.

SEGUNDO: La revisión de precios a la baja aprobada desde el 30/10/2015 hasta el 29/10/2016 implica una minoración en el gasto dispuesto y autorizado en un importe de 259,79.-€ exento de I.V.A.

**26.- GETXO TXUTXUPUTXUEN AURKAKO ESTRATEGIA GARATZEKO, ZUZPERTZEKO ETA BERMATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.**

**26.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE DESARROLLO, DINAMIZACIÓN Y CONSOLIDACIÓN DE LA ESTRATEGIA GETXO ANTIRRUMORES.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- 2015-11-03an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako 412. erabakiaren bidez, GETXOKO ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIA GARATZEKO, DINAMIZATZEKO ETA FINKATZEKO ZERBITZUA esleitzeko izapidea hasi zen, 25.000 eurotan (HOGEITA BOST MILA euro), BEZaren % 21 barne, eta prozedura irekiaren bidez kontratatzea ere erabaki zen.

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº412 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 03/11/2015 se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE DESARROLLO, DINAMIZACIÓN Y CONSOLIDACIÓN DE LA ESTRATEGIA GETXO ANTIRUMORES, por importe de 25.000€ (VEINTICINCO MIL euros), IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Abierto.

BIGARRENA.- Honako hauek dira erreferentziako kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Kontratua egikaritzeko epea URTEBETEKOA (1) izango da, hura sinatzen denetik zenbatzen hasita, baina inoiz ez 2016/01/01 baino lehen. Kontratua BESTE URTE BATEZ (1) luzatu ahalko da, baina guztira kontratuak ezingo du BI (2) URTE baino gehiago iraun.

SEGUNDO.- Las características principales del contrato de referencia son las siguientes:

- El plazo de ejecución del contrato será de 1 (UN) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del contrato, si bien nunca antes del día 01/01/2016. El contrato será prorrogable por OTRO AÑO (1) MÁS, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los DOS (2) años.

- Kontratuaren prezioa, BEZaren % 21 barne, 25.000 eurokoa izango da (HOGEITA BOST MILA euro). Aurreko zenbatekotik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari 4.338,84 € dagokio (LAU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI euro eta LAUROGEITA LAU zentimo).

Kontratuaren balio zenbatetsia 41.322,32 eurokoa da (BERROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BI euro eta HOGEITA HAMABI zentimo).

HIRUGARRENA.- 2015-11-11n, lizitazioaren iragarkia argitaratu zen 217. BAOean.

LAUGARRENA.- 2015-11-27an, Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, aurkeztutako proposamenen dokumentazio orokorra jasotzen zuten gutun-azalak ireki ziren jendaurrean; hori egin zen, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia betez, aplikaziokoak diren udal-xedapenak betez eta aipatutako kontratua esleitzeko espedienteko administrazio-baldintza zehatzen pleguetan jasotakoa betez. Enpresa bakar batek aurkeztu zuen proposamena lizitaziora:
- VARIETES INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L.

BOSGARRENA.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu da eta onartu da aurkeztutako eskaintza.

SEIGARRENA.- Jarraian, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI dagozkien gutun-

- El precio del contrato, IVA del 21% incluido, será de 25.000€ (VEINTICINCO MIL euros). De la cantidad anterior, corresponde en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido la suma de 4.338,84€ (CUATRO MIL TRESCIENTOS TREINTA Y OCHO euros y OCHENTA Y CUATRO céntimos).

El valor estimado del contrato asciende a la cuantía de 41.322,32€ (CUARENTA Y UN MIL TRESCIENTOS VEINTIDOS euros y TREINTA Y DOS céntimos).

TERCERO.- Con fecha 11/11/2015 se publica el anuncio de licitación en el BOB número 217.

CUARTO.- Con fecha 27/11/2015, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, de los sobres que contenían la Documentación General de las proposiciones presentadas. Las empresas que presentaron proposiciones a la licitación fue una:
- VARIETES INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L.

QUINTO.- Examinada la documentación presentada se admite la oferta presentada.

SEXTO.- Se procede, a continuación a la apertura del sobre que contiene los CRITERIOS EVALUABLES DE

azala ireki da. Hauxe izan da emaitza:

FORMA NO AUTOMÁTICA con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br>EMPRESA | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA<br>DOCUMENTACION PRESENTADA |
|---|---|
| VARIETES INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L. | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |

Gero, eta lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu da eta aurkeztutako eskaintza Gizarte Zerbitzuen Arlora (Immigrazioa) bidali da, dagokion balorazioa egin dezan.

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remite la oferta presentada al Área de Servicios Sociales (Inmigración), a fin de que realice la valoración pertinente.

ZAZPIGARRENA.- 2015-12-09an, Immigrazio eta Kultur Artekotasun teknikariak txostena egin zuen AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruz, balorazio honekin:

SÉPTIMO.- Con fecha 09/12/2015, el Técnico de Inmigración e Interculturalidad emitió informe sobre los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA con la siguiente valoración:

| LIZITATZAILEA<br>LICITADOR | AUTOMATIKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS NO AUTOMATICOS | |
|---|---|---|
| | ATALA<br>APARTADO | PUNTUAZIOA<br>PUNTUACIÓN |
| **VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L.** | Justifikazioa eta helburuak<br>Justificación y objetivos | 2 |
| | Esku-hartzea<br>Intervención | 3 |
| | Parte hartzeko mekanismoak<br>Mecanismos de participación | 5 |
| | Zerbitzuen xehetasunak eta zehaztapena<br>Detalle y concreción servicios | 4 |
| | Zabalkuntza eta komunikazioa<br>Difusión y comunicación | 3 |

| | | |
|---|---|---|
| | Genero ikuspegia Perspectiva de género | 1 |
| | Koordinazioa Coordinación | 3 |
| | Lan ordua Hora de trabajo | 1 |
| | Ebaluazio-sistema Sistema de evaluación | 4 |
| | Adierazleak Indicadores | 5 |
| | Hobekuntzak Mejoras | 10 |
| **GUZTIRA TOTAL** | **41** | |

ZORTZIGARRENA.- 2015-12-15eko Kontratazio Mahaian Immigrazio teknikariak 2015-12-09an automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruz egindako txostenaren berri eman zen. Gero, AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zuten; hona hemen lortutako emaitza:

OCTAVO.- En la Mesa de Contratación de fecha 15/12/2015, se da cuenta del informe de fecha 09/12/2015 emitido por el Técnico de Inmigración e Interculturalidad sobre los criterios no evaluables de forma automática. A continuación se procedió a la apertura del sobre correspondiente a CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

| **LIZITATZAILEA LICITADOR** | **IRIZPIDE AUTOMATIKOAK CRITERIOS AUTOMATICOS ESKAINTZA EKONOMIKOA OFERTA ECONÓMICA** 20.661,16€ BEZ KANPO/SIN IVA |
|---|---|
| **VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L.** | (Eskaintzari erantsitako banakapenaren arabera) 2016. URTEA (Según desglose adjunto a la oferta) AÑO 2016 20.105 € |

BEDERATZIGARRENA.- Aurkeztutako eskaintzak zerbitzuarentzat ezarritako gehieneko lizitazioko prezioa errespetatzen du eta ez du gainditzen; beraz, lizitaziorako onartu da.

NOVENO.- La oferta presentada respeta y no rebasa el precio máximo de licitación fijado para el servicio por lo que es admitida a licitación.

Beraz, Kontratazio Mahaiak,

Por lo tanto, la Mesa de Contratación,

automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideen balorazioaren txosten teknikoa eta lizitatzaile bakarrak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa ikusi ostean, proposatu du aipatutako kontratua VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L. enpresari esleitzea; izan ere, prozedura honetara aurkeztutako eskaintza bakarra da, balorazio-taula honen arabera:

visto informe técnico de valoración de los criterios evaluables de forma no automática junto con la oferta económica presentada por el único licitador presentado propone adjudicar el contrato de referencia a la razón social VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L. al ser la única oferta presentada a este procedimiento, de conformidad con el siguiente cuadro de valoración:

| LIZITATZAILEAK LICITADORES | AUTOMATIKOAK EZ DIREN IRIZPIDEEN PUNTUAZIOA PUNTUACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS | IRIZPIDE AUTOMATIKOEN PUNTUAZIOA PUNTUACION CRITERIOS AUTOMATICOS | GUZTIRA TOTAL |
|---|---|---|---|
| **VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L.** | **41** | 51 | **92** |

HAMARGARRENA.- Aurreko guztia ikusita, enpresari honako errekerimendu hau egin zaio 2016-01-04an, SPKLTBaren 146.4 eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Bere betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) 1.005,25 euroko behin betiko bermea eratuta izatea.

DÉCIMO.- Visto cuanto antecede, en fecha 04/01/2016 se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

a) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

b) Haber constituido garantía definitiva por importe de 1.005,25 euros.

Espedientean jasota dago enpresak aurrez aipatutako eskaera betetzeko aurkeztutako dagokion dokumentazioa.

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

ZUZENBIDE OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013,

bertsioan, ekintzaileak eta haiek nazioartekotzeko laguntza emateari buruzkoa.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onetsitakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bat eginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiko testu bategina eta hari lotuta aplika daitezkeen gainerako legeak.

IV.- Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den esleipena egitea, kontratazio-espediente honetan kontratazio-organo eskuduna baita.

Udaleko alkate-udalburuak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzarrari eman zaio hurrengo erabaki proposamena, iritzia eman dezan:

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- Esleitzea VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L. enpresari, IFK B-95603668 duenari, GETXOKO ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIA GARATZEKO, DINAMIZATZEKO ETA FINKATZEKO ZERBITZUA, 20.105 eurotan (HOGEI MILA EHUN ETA BOST euro), gehi 4.222,05 euro (LAU MILA BERREHUN ETA HOGEITA BI euro eta BOST zentimo), BEZaren % 21ari dagozkionak.

Kontratua URTEBETEAN (1)

de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Alcalde-Presidente de la Corporación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa VARIETÉS INNOVACIÓN EDUCATIVA, S.L., con CIF B-95603668 el SERVICIO DE DESARROLLO, DINAMIZACIÓN Y CONSOLIDACIÓN DE LA ESTRATEGIA GETXO ANTIRUMORES, por importe de 20.105€ (VEINTE MIL CIENTO CINCO euros), más 4.222,05€ (CUATRO MIL DOSCIENTOS VEINTIDOS euros y CINCO céntimos), correspondientes al 21% de IVA.

El plazo de ejecución del contrato será

egikarituko da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Kontratua beste URTE BATEZ (1) luzatu ahalko da, baina kontratuaren iraupen osoa ezin izango da 2 (BI) urtetik gorakoa izan.

de 1 (UN) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del contrato. El contrato será prorrogable por OTRO AÑO (1) MÁS, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los DOS (2) años.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko du kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bat eginaren 156.1. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko, hamabost laneguneko epea izango du, gehienez ere, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

SEGUNDO.- El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hamabost minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta lehendakariak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y quince minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Presidenta, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.